

**Azalpen txostena, Diputatu Nagusiaren Alorraren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta agertzen dituen desberdintasun nagusiei eta haiek prestatzean erabilitako irizpideei buruzkoa.**

Diputatu Nagusiaren 3/2015 Foru Dekretuak, ekainaren 24koak, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzekoak, 4. artikuluan xedatzen duenez, diputatu nagusiak kabinete baten laguntza izango du eta izaera horizontala duten jardun esparru hauek kudeatuko ditu:

- a) Aldundiaren kudeaketa estrategia
- b) Bizikidetzeta eta Giza Eskubideak
- c) Euskararen normalizazioa eta erabilera lantzeko politikak, gizartean nahiz foru administrazioan
- d) Berdintasuna sustatzeko politikak

Ematen zaizkion eginkizunak betetzeko, Kabinetearen laguntzaz gain, ondorengo antolaketa hau du Diputatu Nagusiaren Alorrak:

- a) Kudeaketa Estrategiako Zuzendaritza Nagusia
- b) Komunikazio Zuzendaritza Nagusia
- c) Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia
- d) Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia
- e) Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritza

Halaber, Diputatu Nagusiaren Alorrari atxikitzen zaio Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa, 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 7. artikuluan aurreikusten duena.

Goian aipaturiko unitate horiek guztiek dute aurrekontu programa bana beren jarduerak aurrera eramateko, zazpi direlarik departamentu honetatik kudeatzen direnak:

1.- 010 Programa - Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritza.

Bere zeregin nagusia da bultzatzea, koordinatzea eta kontrolatzea departamentuko organo eta zerbitzuek garatutako ekintzak, laguntza materiala, juridikoa eta aurrekontuen

**Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Área del Diputado General respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.**

El artículo 4 del Decreto Foral del Diputado General 3/2015, de 24 de junio, de determinación de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de sus áreas de actuación y funciones dispone que el diputado general estará asistido por un gabinete y gestionará las siguientes áreas de actuación de carácter horizontal:

- a) Estrategia foral de gestión
- b) Convivencia y Derechos Humanos
- c) Políticas para la normalización y uso del euskera en la sociedad y en la administración foral
- d) Políticas de igualdad

Para el ejercicio de las funciones que se le atribuyen, además de la asistencia del Gabinete antes mencionado, el Área del Diputado General se dota de la siguiente organización:

- a) La Dirección General de Estrategia de Gestión
- b) La Dirección General de Comunicación.
- c) La Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos
- d) La Dirección General de Igualdad Lingüística
- e) La Secretaría del Área del Diputado General

Asimismo, se adscribe al Área del Diputado General el Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres, previsto en el artículo 7 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres.

Cada una de las unidades arriba descritas cuenta para llevar a cabo sus actuaciones con un programa presupuestario de modo que son siete los programas que se gestionan a través de este departamento:

1.- Programa 010 - Secretaría del Área del Diputado General.

Su principal cometido es impulsar, coordinar y controlar las actividades desarrolladas por los distintos órganos y servicios del departamento, prestar el apoyo material,

arloko laguntza ematea diputatu nagusiari, zuzendaritza nagusiei eta zerbitzuei eta departamentuko informazio eta administrazio sistemak hobetzea ekar ditzaketen ekintzak bultzatzea. Era berean, unitate honen ardura da Kudeaketa Plan Estrategikoaren jarraipenean laguntza teknikoa ematea.

Zentzu horretan, 010 programak ez du ezberdintasun nabarmenik 2018rako ekitaldirako onartutakoarekin, kopuruei dagokionez. Dena dela, jarraipena egiteko hainbat informatikako egitura jarraitu eta kontrolatzeko aplikazioa ezartzeak eragin du handitzea Informatika zerbitzuetarako zuzkidura, xede duena horrelako aplikazioak mantentzea. Horrek, VI. kapituluko Aplikazio informatikoei buruzko kontu saila zenbateko berean gutxitzea ekarri du.

## 2.- 100 Programa - Diputatu Nagusiaren Kabinetea.

Bere misioa da Foru Aldundiaren gobernuaren ekintza-arau orokorrak finkatzea, foru diputatuen jokabidea zuzenduz eta koordinatuz, eta jardueren oinarriko estrategiaren ezarrera zuzentzea 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoan ezarritakoaren arabera. Ildo horretan, adierazi behar da Etorkizuna Eraikiz ekimenari emandako bultzada. Lurraldearen etorkizuneko erronkei aurre egiteko proiektu experimental eta estrategiko sorta bat identifikatzen du, eta, hori egiten du harreman eta lankidetzaren estilo berri bat proposatuz Gipuzkoako pertsonekin eta eragile sozioekonomikoekin.

Aipatu behar da diru laguntza izendun hauek jaso direla: 1- *Gaia Investigación y Consultoría SL*, xede duena Garaje proiektua finantzatzea; 2- *Etxepare Euskal Institutua*, xede duena lankidetzaren aritzea eragile desberdinekin Eskozian garatuko den programa batean, euskal kultura atzerrian zabaltzeko.

Baita ere, diru laguntza izenduna Jakin Fundazioaren izenean. Diru laguntza hori Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritzaren zegoen aurreko ekitaldian, eta, orain, programa honetan jaso da.

jurídico y presupuestario que requieran tanto el diputado general como las direcciones generales y los servicios, así como impulsar cuantas actividades conlleven una mejora de los sistemas administrativos y de información del departamento. Igualmente, esta unidad es la encargada de prestar apoyo técnico en el marco del seguimiento del Plan Estratégico de Gestión.

En este sentido, el programa 010 no presenta diferencias significativas en relación con el aprobado para el presente ejercicio 2018 en lo que respecta a sus importes. No obstante, la implantación de la aplicación para el seguimiento y control de diferentes estructuras informáticas de seguimiento ha supuesto que la dotación para Servicios informáticos, que tiene por objeto el mantenimiento de este tipo de aplicaciones, consigne un aumento, el cual se ha visto equilibrado por una disminución por el mismo importe en la partida relativa a Aplicaciones informáticas del capítulo VI.

## 2.- Programa 100 - Gabinete del Diputado General.

Tiene como misión establecer las directrices generales de la acción de gobierno de la Diputación Foral, dirigiendo y coordinando la actuación de los diputados y diputadas, y liderar la implementación de la estrategia básica de actuación de acuerdo con lo establecido en el PEG 2015-2019. En esta línea, cabe señalar el impulso de la iniciativa Etorkizuna Eraikiz que, además de identificar una serie de proyectos experimentales y estratégicos que den respuesta a los retos de futuro del territorio, lo hace proponiendo un nuevo estilo de relación y cooperación con las personas y los agentes económicos y sociales de Gipuzkoa.

Cabe destacar la incorporación de las siguientes subvenciones nominativas: 1- *Gaia Investigación y Consultoría SL* cuyo objetivo es financiar el proyecto Garaje; 2- *Instituto Vasco Etxepare* con la finalidad de cooperar con diferentes agentes en el programa previsto desarrollar en Escocia para difundir la cultura vasca en el exterior.

Además, la subvención nominativa a nombre de Jakin Fundazioa, la cual figuraba en la Dirección de Igualdad Lingüística en el ejercicio anterior, se incorpora a este programa.

### 3.- 200 Programa – Aldundiaren Kudeaketa Estrategia.

Programa honi dagokio diputatu nagusiari zuzeneko laguntza eskaintzea Gobernuaren jardueran, epe ertaineko eta luzeko ikuspegi estrateragiko bat emanez gobernantza ireki eta elkarlaneko eredu baten bidez, haren gidaritzatza eta koordinaziopean politika publikoak modu eraginkor eta efizientean kudeatzeko aukera emango duena.

2019. urteko aurrekontuan protagonismo berezia hartzen dute Etorkizuna Eraikiz ekimenak, etorkizuneko erronkek eskatzen dituzten erantzunak lortzeko gobernuaren ekintza gidatu nahi duen elementu nagusia denak, 2017-2019 agenda politiko berria sustatzeko hornidurak eta proiektu estrateragikoek eta esperimenteralek.

Horretarako, beste ekintza batzuen artean, Etorkizuna Eraikiz – Gipuzkoa Lab laguntza lerroekin jarraitzen da, lurraldearentzat proiektu berritzaileak sortzeko. Ekintza publikoaren erronken inguruko ezagutza sendotzeko helburuarekin, hitzarmenak sinatzen dira Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta Tecnun Nafarroako Unibertsitatearekin. Hausnarketa akademikoa lerrokatu nahi da lurraldearen erronkei eta lehenatasunei begira.

Era berean, indartu egiten da laguntza lerro berri bat, xede duena eskualde mailan gobernantza estilo berriaren ezarpena arretaz aztertzea; Gipuzkoako enpresetan langileen parte hartzea sustatzea bultzatzen da; eta zahartzeari erantzuteko zuzendutako ekimenen inguruko gogoeta eragiten da. Azpimarratzekoa da ere MCC-rekin dagoen lankidetzatza, helburu duena Gipuzkoako kooperatibagintzaren jarraibideak eta egiteko moduak sustatzea.

Azkenik, xedapen bat egiten da Think Tank ekimenean garatzen ari diren gogoeta estrateragikotik sortutako proiektu esperimenteral berrien alde.

### 4.- 300 Programa – Komunikazioa.

Programa honen helburua da Aldundia herritarrengana hurbiltzea, horien pertzepzioa hobetuz eta eguneratuz, eta sendotzea barne komunikazioa eta Batzar Nagusiekikoa, gardentasunean aurrera pausuak emanez eta

### 3.- Programa 200 – Estrategia Foral de Gestión.

Corresponde a este programa ofrecer apoyo directo al Diputado General en la acción de gobierno, aportando una visión estrateragica a medio y largo plazo a través de un modelo de gobernanza abierto y colaborativo que bajo su liderazgo y coordinación permita una gestión eficaz y eficiente de las políticas públicas.

En el presupuesto para 2019 la iniciativa Etorkizuna Eraikiz, como elemento central que quiere guiar la acción de gobierno hacia las respuestas que los retos de futuro exigen, adquiere un protagonismo específico, lo mismo que la provisión para el impulso de la nueva agenda política 2017-2019 y los proyectos estrateragicos y experimentales.

Entre otras actuaciones, prevé continuar con la línea de ayudas Etorkizuna Eraikiz – Gipuzkoa Lab que tiene por objetivo la generación de proyectos innovadores para el territorio. Con el objetivo de fortalecer el conocimiento en torno a los retos de la acción pública, se establecen convenios con la Universidad del País Vasco, Universidad de Deusto, Mondragon Unibertsitatea y Tecnun Universidad de Navarra. Se pretende alinear la reflexión académica hacia los retos y prioridades del territorio.

Asimismo, se potencia una nueva línea de ayudas que tiene por objeto explorar la implementación del nuevo estilo de gobernanza a nivel comarcal; se impulsa el fomento de la participación de los y las trabajadores en las empresas guipuzcoanas; y se promueve una reflexión acerca de iniciativas orientadas a responder al envejecimiento. Debe destacarse igualmente la colaboración con MCC, cuya finalidad es la proyección de las pautas y modos de hacer del cooperativismo guipuzcoano.

Finalmente, se contempla una dotación para los nuevos proyectos experimentales surgidos de la reflexión estrateragica que viene desarrollando el Think Tank.

### 4.- Programa 300 – Comunicación.

El objetivo de este programa es acercar la Diputación a la ciudadanía, actualizando y mejorando su percepción, y reforzar la comunicación interna y con las Juntas Generales, dando pasos hacia la

langileen inplikazioa areagotuz.

Programa honen barnean Komunikazio Plan berriaren gauzatzearekin jarraitzen da eta prentsa dokumentazioko lanekin. Azpimarratu ere 2019ra arte komunikazio digitalean aholkularitza emateko kontratua indarrean dagoela, web orriak aztertzeke.

Adierazi behar da 2019ko aurrekontuan jasotzen dela iaz esleitutako kontratazioa, komunikazio espazioak planifikatu eta erosteko.

#### 5.- 400 Programa – Bizikidetza eta Giza Eskubideak.

Programa honen helburua da bakea behin betiko eta modu atzeraezinean finkatzen laguntzea, eta Gipuzkoako kultura demokratikoa sakontzea, gipuzkoarren elkarbizitza hobetuz.

Zuzendaritzak lehenesten dituen jarduera esparruak dira tokiko politikak, eta gizarteko eragileekin eta gainerako erakundeekin elkarlana, giza eskubideak eta giza duintasuna oinarri direlarik. Zentzu horretan, sendotuta daude *Bizikidetza Lantzen* programa eta udal eremuan bizikidetza sustatzeko programa.

Gipuzkoarren kultura politikoari buruzko azterlanen ondoren, kultura politiko demokratikoari buruzko programa abiarazi da, batez ere herritar gazteenei zuzenduta dagoena, 2018. urtearen amaieran hasitako bi programa esperimentalen bidez.

2019. urtean ere *Aniztasuneko Bizikidetzarako Foru Planaren* garapena bultzatu nahi da.

Era berean, nazioartean dugun presentzia sendotu nahi da eta modu aktiboago batean esku hartu nahi dugu nazioartean. Horretarako, kontu sail berezi bat bideratu da Tokiko Hiri eta Gobernu Elkartuen (THGE) Nazioarteko Elkarateak ematen dituen Peace Prize delakoari babesa emateko. Horrekin, Gipuzkoak egiten duen lana nazioartekotu nahi da eta ezagutza ematen duten sareak ezarri.

Azkenik, murriztu egin da oroimen historikoa transmititzeko eta hedatzeko programetara bideratutako kontu saila; izan ere, 2018. urtean

transparencia e incrementando la implicación de los y las trabajadores/as.

Dentro de este programa se continúa con la ejecución del nuevo Plan de Comunicación y con los trabajos de documentación de prensa. Destacar igualmente el contrato vigente hasta el año 2019 para el asesoramiento en comunicación digital para la revisión de las páginas web.

Cabe señalar que en el presupuesto de 2019 figura la contratación adjudicada el año anterior para la planificación y compra de espacios de comunicación.

#### 5.- Programa 400 – Convivencia y Derechos Humanos.

Este programa tiene como misión contribuir a consolidar la paz de modo definitivo e irreversible, y profundizar en la cultura democrática de Gipuzkoa, mejorando así la convivencia de la ciudadanía guipuzcoana.

Los ámbitos de actuación que prioriza la Dirección son las políticas locales y el trabajo conjunto con agentes sociales y las restantes instituciones, basado en los derechos humanos y la dignidad humana. En este sentido, se dan por consolidados los programas *Bizikidetza Lantzen* y de fomento de la convivencia en el ámbito municipal.

Tras los estudios sobre la cultura política de los y las guipuzcoanas, se pone en marcha el programa sobre cultura política democrática, sobre todo dirigida a la población más joven, con dos programas experimentales que se inician a finales de 2018.

En 2019 también se quiere impulsar el desarrollo del *Plan Foral de Convivencia en la Diversidad*.

Así mismo, se quiere reforzar la presencia internacional y se quiere intervenir de forma más activa en escenarios internacionales, por lo que se ha destinado una partida específica para patrocinar el Peace Prize que otorga la Asociación Internacional *Ciudades y Gobiernos Locales Unidos* (CGLU). Con ello se quiere internacionalizar el trabajo que hace Gipuzkoa y establecer redes que aporten conocimiento.

Finalmente, se minora la partida dedicada a programas de transmisión y divulgación de la memoria histórica, ya que el incremento de

kontu sail hori handitu egin zen programa espermental bat abian jarri zelako, baina, 2019. urtean, beste modu bat izango du.

#### 6.- 500 Programa – Hizkuntza Berdintasuna.

Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 2019ko aurrekontua oinarritzen da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kudeaketa Plan Estrategikoak ezarritako helburuetan eta jarduketa ildoetan.

Helburu nagusia da lehenespenez euskara erabiltzea bai Aldundiaren barruan, baita lurraldeko gizarte eragileekin ere, hiztunen arteko berdintasuna sustatzeko.

Hiru jarduketa ildo markatu dira helburu hori lortzeko:

- Aldundian euskara ohiko zerbitzu hizkuntza, laneko hizkuntza eta komunikazio hizkuntza izatera iritsi ahal izateko martxan dauden programak indartu eta hobetzea.

- Udalekin, hizkuntza sektorearekin eta Gipuzkoako eragile nagusiekin elkarlanean jardutea, politikak lerrokatzeko eta pertsonen hizkuntza aukerak berdintzera bideratutako proiektuak partekatzeak.

- Berrikuntzarako jarritako baliabideak indartzea, hainbat ikerketa lerro abiarazteko (hiztunen aktibazioa, hizkuntza ulertzeko metodologia bizkorra, autoritate tekniko bat diseinatzea, enpresetako hizkuntza planetarako neurri fiskalak, 10-16 urteko segmentuan euskararen erabilera sustatzeko plan sistematikoa).

Jarduketa ildo bakoitzak jasotzen dituen ekintzekin lotutako aurrekontu sailetan zenbait aldaketa egin dira, 2018ko aurrekontuaren aldean. Honela laburtzen dira:

Ekimen berri bat jaso dugu, helduen euskalduntzearen doakotasunaren bidean aurrera egiteko, Eusko Jaurlaritzak eta aldundiok bultzatuta.

Diru laguntza izendun batzuk kendu dira, eta horien zenbatekoak dena delako diru laguntza deialdira bideratu dira.

Diru laguntza izendun batzuk indartu dira, euskalgintzarekin batera egindako partaidetza prozesuan definitutako irizpideen arabera,

2018 se debió a un programa experimental que se puso en marcha y que en 2019 tendrá otra forma diferente.

#### 6.- Programa 500 – Igualdad Lingüística.

El presupuesto de la Dirección General de Igualdad Lingüística para 2019 se basa en los objetivos y líneas de actuación establecidos por el Plan de Gestión Estratégica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El objetivo central es impulsar el uso por defecto del euskera, tanto en la Diputación como con el resto de agentes del territorio, a fin de fomentar la igualdad entre hablantes.

Se han marcado tres líneas de actuación para conseguir dicho objetivo:

- Fortalecimiento y mejora de los programas en curso para lograr el uso habitual del euskera como lengua de servicio, de trabajo y de comunicación por parte de la Diputación.

- Trabajo colaborativo con los ayuntamientos, el sector lingüístico y los principales agentes de Gipuzkoa para alinear políticas y compartir proyectos orientados a igualar las opciones lingüísticas de las personas.

- Refuerzo de los recursos destinados a innovación, para iniciar diversas líneas de investigación (activación de hablantes, metodología rápida para la comprensión lingüística, diseño de una autoridad técnica, medidas fiscales para los planes lingüísticos en la empresa, plan sistémico para fomentar el uso del euskera en el segmento 10-16 años).

Se han realizado algunos cambios en las partidas presupuestarias vinculadas a las acciones que recoge cada línea de actuación, con respecto al presupuesto de 2018. Pueden resumirse así:

Se ha recogido una nueva acción relativa a la gratuidad progresiva de la enseñanza del euskera a personas adultas, una iniciativa conjunta del Gobierno Vasco y diputaciones.

Se han suprimido determinadas ayudas nominativas, para dirigir su importe a las ayudas públicas oportunas en cada caso.

Se han reforzado algunas ayudas nominativas, conforme a los criterios definidos en el proceso participativo llevado a cabo con

esparru estrategikoetan eta sektorearen trakzio lana egiteko ikuspegiaz.

Aipatutako partaidetza prozesuaren emaitza gisa, bi diru laguntza lerro berri ireki dira, arlo sozioekonomikoaren eta gazteen aisialdiaren esparruetan.

Aurrekontu sail batzuk egokitu ditugu, kapituluz aldatuta, Kontuhartzailletza eta Auditoretza Zerbitzuak egindako iradokizunen arabera.

Azkenik, doikuntza txiki bat egin behar izan da hornidura handieneko diru laguntzetan (euskararen sustapena udaletan, toki hedabideak, IKT), aurrekontuaren hazkunde aurreikusien helburua betetzearren.

#### 7.- 600 Programa – Berdintasuna.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoari dagokionez, ia ez da aldaketarik egon 2018ko aurrekontuarekin alderatuta.

Alde batetik, apur bat murriztu da Kontziliazio Planera bideratutako kontu saila. Hori gertatu da, alde batetik, doikuntza bat egin delako; izan ere, Planean jasotako ekintza batzuk beste foru departamentu batzuk egin behar baitituzte. Era berean, Berdintasunerako Organoak zuzentzen duen ekintzetako batek –HerriLab proiektu pilotuak– berriazko kontu sail bat dauka, IV. kapituluan, 2019ko aurrekontuan.

Bestetik, sentsibilizaziora bideratutako kontu saila handitu egin da, aurreikusita baitago 2019. urtean berdintasunaren alorreko nazioarteko kongresu bat egitea.

Azkenik, apur bat sendotu da indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko lerroa, zeinak *Aurre! Plana* garatzeko laguntza teknikoarentzako kontu sailaz gain, beste bi kontu sail ere jasotzen baititu: horietako bat, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arretarako foru zerbitzuen ebaluazioa egiteko, eta, beste kontu sail orokor bat, beste ekintza batzuk garatzeko *Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Aurre! Planaren* esparruan.

Laburbilduz, 2019ko ekitaldirako aurrekontuak hainbat ezberdintasun ditu 2018. ekitaldirako onartutakoarekin alderatuta; hauek zuzendaritza nagusiek lehenetsi nahi dituzten proiektuen ondorio dira.

el sector, en ámbitos estratégicos y con una visión de tracción del sector.

Como resultado del proceso participativo indicado, se han abierto dos nuevas líneas de ayudas en los ámbitos socio-económico y del ocio juvenil.

Se han llevado a cabo algunas adaptaciones de determinadas partidas, con cambio de capítulo, a sugerencia del Servicio de Intervención y Auditoría.

Por último, se ha realizado un pequeño ajuste en las partidas de subvenciones más significativas (promoción del euskera en municipios, medios de comunicación locales, TIC), para adecuarnos al objetivo de incremento presupuestario previsto.

#### 7.- Programa 600 – Igualdad.

En relación con el Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres, apenas se producen cambios respecto al presupuesto de 2018.

Por un lado, disminuye un poco la partida destinada al Plan de Conciliación. Esto es debido, por un lado, a un ajuste, dado que parte de las acciones del Plan deben ser realizadas por otros departamentos forales. Además, una de las acciones lideradas por el Órgano para la Igualdad –el proyecto piloto HerriLab– cuenta para 2019 con una partida específica en el Cap. IV.

Por otro lado, la partida destinada a sensibilización se ha visto incrementada, dado que está previsto realizar un congreso internacional en materia de igualdad en 2019.

Finalmente, se refuerza ligeramente la línea de lucha contra la violencia machista la cual, además de una partida para la asistencia técnica en el desarrollo del *Plan Aurre!*, recoge otras dos partidas: una destinada a la evaluación de los servicios forales de atención a la violencia machista contra las mujeres y otra partida general para el desarrollo de otras acciones en el marco del *Plan Aurre! para enfrentar la violencia contra las mujeres en Gipuzkoa*.

En resumen, el presupuesto para el año 2019 recoge algunas diferencias en relación con el aprobado para 2018 que derivan, principalmente, de proyectos que se desean priorizar desde las direcciones generales.



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa


2019ko Aurrekontua  
Presupuesto 2019

01 Departamentua DIPUTATU NAGUSIA/

Departamento 01 DIPUTADO GENERAL

(Mila eurokotan/Miles de euros)

| Programak                                                                                  | LANGILEAREN<br>GASTUAK<br>1 | ONDASUN ETA<br>SERB.OHIKO<br>2 | FINANTZA<br>GASTUAK<br>3 | TRANSFER.<br>ARRUNTAK<br>4 | KONTINGENT.<br>EZUSTEKOAK<br>5 | INBERTSIO<br>ERREALAK<br>6 | KAPITAL<br>TRANSFER.<br>7 | FINANTZA<br>AKTIBOAK<br>8 | FINANTZA<br>PASIBOAK<br>9 | AURREKONTUA<br>GUZTIRA |
|--------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------|--------------------------------|--------------------------|----------------------------|--------------------------------|----------------------------|---------------------------|---------------------------|---------------------------|------------------------|
| Programas                                                                                  | GASTOS DE<br>PERSONAL       | GTOS.CTES.<br>BIEN.Y SERV      | GASTOS<br>FINANCIEROS    | TRANSFER.<br>CORRIENTES    | CONTINGENC.<br>IMPREVISTOS     | INVERSIONES<br>REALES      | TRANSFER.<br>DE CAPITAL   | ACTIVOS<br>FINANCIEROS    | PASIVOS<br>FINANCIEROS    | TOTAL<br>PRESUPUESTO   |
| 01. Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritza/<br>Secretaría del Área del Diputado General | 530,84                      | 140,45                         |                          |                            |                                | 260,74                     |                           |                           |                           | 932,03                 |
| 10. Diputatu Nagusiaren Kabinetea/<br>Gabinete del Diputado General                        | 750,53                      | 351,00                         |                          | 533,07                     |                                |                            |                           |                           |                           | 1.634,61               |
| 20. Aldundiaren Kudeaketa Estrategia/<br>Estrategia Foral de Gestión                       | 95,25                       | 3.314,45                       |                          | 1.829,98                   |                                |                            |                           |                           |                           | 5.239,68               |
| 30. Komunikazioa/<br>Comunicación                                                          | 137,66                      | 2.063,66                       |                          | 4,84                       |                                |                            |                           |                           |                           | 2.206,16               |
| 40. Bizikidetzeta eta Giza Eskubideak/<br>Convivencia y Derechos Humanos                   | 230,73                      | 405,50                         |                          | 963,50                     |                                |                            |                           |                           |                           | 1.599,73               |
| 50. Hizkuntza Berdintasuna/<br>Igualdad Lingüística                                        | 1.166,43                    | 841,08                         |                          | 3.714,58                   |                                |                            | 952,60                    |                           |                           | 6.674,69               |
| 60. Berdintasuna/<br>Igualdad                                                              | 515,89                      | 865,80                         |                          | 631,50                     |                                |                            |                           |                           |                           | 2.013,19               |
| <b>Departamentua Guztira<br/>Total Departamento</b>                                        | <b>3.427,33</b>             | <b>7.981,94</b>                |                          | <b>7.677,47</b>            |                                | <b>260,74</b>              | <b>952,60</b>             |                           |                           | <b>20.300,08</b>       |



- 1. LANGILEAREN GASTUAK/GASTOS DE PERSONAL
- 2. ONDASUN ETA SERB.OHIKO/GTOS.CTES. BIEN.Y SERV
- 4. TRANSFER. ARRUNTAK/TRANSFER. CORRIENTES
- 6. INBERTSIO ERREALAK/INVERSIONES REALES
- 7. KAPITAL TRANSFER./TRANSFER. DE CAPITAL